



Bizkaia

Batzar Nagusiak
Juntas Generales



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

eguna
fecha 2018 MAR: 26

Sarrera-Erroldea/ Registro de Entrada

ZK/Nº 1175
ordua / hora 10:15

ANA OTADUI BITERI ANDRE TXIT GORENA
BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARIA

ANDRE TXIT GOREN HORI,

EXCMA. SRA.,

Honekin batera, Podemos Bizkaia batzarkide eskatutako dokumentazioa bidaltzen dizut (expediente zk.:5213). Gaia: Mundaka Festival 2017koaren balantzea.

A petición del Grupo Juntero Podemos Bizkaia, adjunto le remito la documentación solicitada (expediente nº 5213), sobre el balance del Mundaka Festival 2017.

Agur bero bat,

Un saludo.

Igor Camaño Ortuzar
Ahaldun Nagusiaren Kabineteko Burua
Jefe del Gabinete del Diputado General

Bilbo, 2018ko martxoak 23

Bilbao, 23 de marzo de 2018



Ahaldun Nagusiaren Kabineteko Burua
Jefe del Gabinete del Diputado General

2018 MAR: 26

SARRERA/ENTRADA IRTEERA/SALIDA
ZK/Nº _____ ZK/Nº 1027

Nork / De	DIPUTADO FORAL DE DESARROLLO ECONOMICO Y TERRITORIAL
Nori / A	DIRECTOR DEL GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL
Gaia / Asunto	Pregunta JJ.GG Expd. 10/B/27/0005213 Bizkaiko Batzar Nagusietako Erantzuna

Honekin batera, Bizkaiko Batzar Nagusietako PODEMOS TALDEAK 5213 espediente zenbakiarekin aurkeztutako eskabideari erantzunez, **"Mundaka Festival 2017koaren balantzeari"** buruzko informazioa helarazten deusut.

En contestación a la solicitud de las Juntas Generales de Bizkaia, planteada por el GRUPO PODEMOS nº de expediente 5213, adjunto se remite información relativa a **"El Balance del Mundaka Festival 2017"**.

Begirunez,

Atentamente,



Imanol Pradales Gil.

2018 MAR. 23

SARRERA/ENTRADA IRTEERA/SALIDA
Zk/Nº 1216 Zk/Nº _____

22 MAR 2018

SARRERA / ENTRADA IRTEERA / SALIDA
Zk. / Nº _____ Zk. / Nº 3588

HONEN BIDEZ, ERANTZUNA EMATEN ZAIO BATZAR NAGUSIETAN PODEMOS-AHAL DUGU BIZKAIA TALDEKO BATZARKIDEA DEN ELSA PAMPARACUATRO ANDREAK EGINDAKO INFORMAZIO ESKAERARI (EXPEDIENTE ZK.: 5.213 / ERREGISTRO ZK: 568). GAIA: "MUNDAKA FESTIVAL 2017"-REN BALANTZEA

Podemos-Ahal Dugu Bizkaia Taldeak egindako informazio eskaerari erantzunez, Mundaka Festival 2017 Jaialdiari buruzkoa, hauxe adierazi behar da:

Mundaka Festival, The Basque Music & Cook Festival Jaialdiaren hirugarren edizioa 2017ko uztailaren 28tik 30era arte egin zen eta, aurreko edizioetan gertatu zen bezala, nazioarte mailan oihartzun zabala izan du eta bisitari asko erakarri ditu.

Horregatik Bizkaiko Foru Aldundiaren Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiaren ustez estrategikoa da mota horretako ezaugarriak dituen ekitaldi baten, nazioarte mailan horrelako ospea duena, Bizkaia irudia zabaltzea eta sustatzea.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak ez du jaialdia diruz laguntzen eta, ondorioz, ez da bidezkoa Jaialdiaren antolatzaileei jaso den eskabide honetan eskatzen diren datuak eskatzea.

Mundaka Festival Jaialdiari dagokionez Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiaren Turismoaren arloko Aurrekontuko Programari egotzen zaion gastua ekitaldian Bizkaia irudia sustatzeari eta zabaltzeari buruzkoa da eta horren munta 90.909,09 euro (BEZ kanpo) izan zen.

Ekitaldian Bizkaia irudiaren publizitatea eta sustapena egiteko beharkizunak batzuk izan ziren eta horien artean honako hauek azpimarratu behar dira:

RESPUESTA A LA SOLICITUD DE INFORMACIÓN (EXPEDIENTE Nº 5.213 /REGISTRO N.º 568), PRESENTADA POR LA APODERADA DEL GRUPO PODEMOS BIZKAIA, DÑA. ELSA PAMPARACUATRO, SOBRE EL BALANCE DEL MUNDAKA FESTIVAL 2017.

En respuesta a la solicitud de información realizada por Podemos Bizkaia con el balance del Mundaka Festival 2017, indicar lo siguiente:

La tercera edición de Mundaka Festival, The Basque Music & Cook Festival, que tuvo lugar entre el 28 y 30 de julio de 2017, ha tenido una amplia repercusión internacional y de atracción de visitantes, al igual que en ediciones anteriores.

Por ello, desde la Dirección General de Promoción Exterior y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia, se considera estratégica la promoción y divulgación de la imagen de Bizkaia en un evento de estas características, con gran repercusión internacional.

Desde el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial no se subvenciona el festival, por lo que no corresponde requerir a los organizadores del festival los datos requeridos en la solicitud recibida.

El gasto que se imputa al Programa Presupuestario de Turismo de la Dirección General de Promoción Exterior y Turismo relacionado con el Mundaka Festival corresponde a la promoción y divulgación de la imagen de Bizkaia en el evento y ascendió a un importe de 90.909,09 euros (IVA excluido).

Los requerimientos de publicidad y promoción de la imagen de Bizkaia para el evento son varios, entre los que destacan:



- Bizkaiaren izena sartzea prentsaurreko guztietan, prentsa-ohar guztietan eta Mundaka Festival 2017 Jaialdiari lotuta dauden komunikabide elkartuen gainerako jardueretan.

- Bizkaiaren logotipoa eta izena sartzea Mundaka Festival 2017 Jaialdiaren publizitate guztian, hala telebistakoan nola irratietan eta inprimatutako publizitatean.

- Bizkaiaren izen inprimatua sartzea Mundaka Festival 2017 Jaialdiaren publizitate-karteletan, liburuxketan, sustapeneko bandera eta pankartetan.

- Bizkaiaren logotipoa esparruko panel digitaletan erakutsi behar da kontzertuen eta Jaialdiaren barruko gainerako ekitaldien emanaldiak egiten direnean; logo horrek gutxienez emanaldiaren ehuneko hogeian (% 20) agertu behar du.

- Halaber, Bizkaia kontuan hartu behar da Twitter, Facebook, Instagram eta Mundaka Festival Jaialdiaren gainerako sare sozialetako kontuetan.

Ekitaldia amaitu ondoren ekitaldi horren eraginei eta, horren bidez, Bizkaiaren irudiaren sustapenari eta zabalkuntzari buruzko txostena-balantzea jasotzen da.

Bilbon, 2018ko martxoaren 23an

- Incluir el nombre de Bizkaia en todas las conferencias de prensa, comunicados de prensa y demás actividades de los medios asociados con el Mundaka Festival 2017

- Incluir el logotipo de Bizkaia, su nombre en toda la publicidad del Mundaka Festival 2017, sea en televisión, radio o publicidad impresa.

- Incluir el nombre impreso de Bizkaia en los carteles publicitarios, folletos, banderas y pancartas promocionales de Mundaka Festival 2017.

- El logotipo de Bizkaia debe mostrarse en los paneles digitales del recinto durante la retransmisión de los conciertos y demás eventos del festival, durante un tiempo mínimos del veinte por ciento (20%).

- Asimismo, Bizkaia debe ser reconocida en las cuentas de Twitter, Facebook, Instagram y demás redes sociales de Mundaka Festival.

Con posterioridad al evento se recibe un informe-balance de valoración del impacto de este evento y de la promoción y divulgación de la imagen de Bizkaia, a través del mismo.

Bilbao, a 23 de marzo de 2018

Asier Alea Castaños

Kanpo Sustapenerako eta Turismorako zuzendari nagusia
Director general de Promoción Exterior y Turismo